

BERGARAKO UDALA

KULTURA ETA JAIETAKO LAGUNTZAILE LANPOSTURAKO LAN-POLTSA OSATZEKO DEIALDIA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK

Lehena. Deialdiaren xedea

Oinarriok helburu dute aldi baterako kontratazio premietarako Kultura departamendurako Kultura eta jaietako laguntzaile langileen lan-poltsa sortzea oposizio-lehiaketa bidez eta, horretarako, deialdi bakar hau egitea.

Lanpostua, Enplegatu Publikoaren Estatutuak jasotako sailkapen-taldeei jarraituz, C sailkapen-mailan, C2 azpitaldean sailkatuta dago, eta 7. mailari dagokion soldata-maila du, duen urteko lan-jardunaren proportzioa aplikatuta. Lanpostua baloratu gabe dago, baina balorazioaren emaitza kontratazioaren lehen egunetik aplikatuko da.

Halaber, 2. hizkuntza-eskakizuna du, derrigorrezkoa.

Urteko lan-jarduna partziala da, Udalak langileen lan-hitzarmenean onartuta duenaren % 73koa, eta lan-jardun hau premien arabera gehitu ahal izango du Udalak. Lana astelehenetik igandera eta jaiegunetan egingo du.

Lan-jarduna aldagarria da, urtean konputatzekoa; horregatik, lan-egutegia eta lan-ordutegia Seminarixoa aretoko programazioari eta kultura eta jaietako programazioari lotuko zaizkio; gehienetan asteburuetan eta gau eta jaiegunei dagokien ordutegian eta egutegian egin beharko du lan.

Lanpostuaren ezaugarriak hauek dira:

- Titulazioa: Eskola Graduatua, LH-I edo erdi mailako espezialista edo pareko mailakoa den tituluaren jabe izatea.
- Hizkuntza-eskakizuna: HAEE/IVAPeko 2. hizkuntza-eskakizuna, derrigorrezkoa.
- Gidabaimena: Indarrean dagoen B gidabaimena.

Lanpostuaren egitekoak, besteak beste, ondoko hauek dira:

Lanpostuaren eginkizunak honako hauek dira:

- a. **Seminarixoa Kultura Aretoa:** Ikuskizunen muntaketako arduradunei lagundu eta takila, atezaintza eta mantentze lanak egin.
- b. **Jai-ekintzetan:** Muntatzea, zaintzea eta hainbat lan. Kontrataturako taldeei eta bestelakoei ere harrera egin eta ekitaldien jarraipen eta balorazioa egin eskatzen zaion guztietan
- c. **Kultura-ekintzetan:** Lagundu hura zabaltzen, kartelak jartzen eta kentzen, udalak antolatutako ekintzak iragartzen duen materiala etxez etxe banatzea etab. Udalak antolatutako ekitaldiak direla-eta, kultur talde eta bestelakoei harrera egin eta ekitaldien jarraipen eta balorazioa egin eskatzen zaion guztietan.
- d. Kultur eta kirol eraikinak ireki, itxi, prestatu eta zaindu.
- e. Musika-tresneria muntatu, desmuntatu, jarri eta kontrolatu, eta edozein kultur ikuskizun eta emanaldi aurrera eramateko beharrezkoa denean materiala garraiatu. Erabiltzen dituzten makineria eta tresnak zaindu.

- f. **Aroztegi aretoan:** Antolatzen diren erakusketen muntatze eta desmuntatze lanak egin eskatzen zaionean edo/eta zaintza-lanak ere, eskatuko balitzaio.
- g. Udal atezainarekin, Obra eta Zerbitzuetako langileekin edota beste udal zerbitzu batzuetako langileekin elkarlanean aritu, hala behar denean eta eskatzen zaionean.
- h. Kultura- eta jai-ekintzetan erabiltzaile eta ikusleen segurtasuna zaindu.
- i. Udal eraikuntzetako atezaintza-lanak egitea, beharrezkoa denean.
- j. Udalak antolatutako edo udalak lagundutako jai edo kultura ekintzetan argindarraren premia dagoenean, konexioa egin eta kendu esandako orduetan.
- k. Larrialdietako planaren arabera adjudikatutako lanak egitea.
- l. Eta, oro har, bere kategorian haren arduradun hierarkikoak eskatzen dizkion egiteko guztiak.

Bigarrena. Izangaiek bete beharreko baldintzak

Deialdian parte hartu nahi duten pertsonak, onartuak izateko, ondoren aipatuko diren baldintza guzti hauek bete beharko dituzte, bat bera ere uzteke:

- a) Europar Batasuneko kide diren estatuetakoren baten herritartasuna izatea edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.

Parte hartu ahal izango du, era berean, Europar Batasuneko kide diren estatuetakoren herritarren ezkontideak, betiere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak ere, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urte baino gutxiagokoak badira, eta adin horretatik gorakoak baina bere pentzuan bizi direnak.

Era berean, parte hartu ahal izango dute Espainiako estatuan bizi eta aurreko paragrafoetan sartu gabe daude atzeritarrek. Hauek aukeratuak izango balira, kontratuaren objektu den jardura burutzeko administrazioaren baimena dutela probatu beharko dute, aipatutako kontratua egin baino lehen.

- b) 16 urte beteta izatea.
- c) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua, Lehen Mailako Lanbide Heziketako graduatutitulua edo parekideak.
Titulazioak atzerrikoak badira, haien homologazioaren egiaztatzea eduki beharko da.
- d) Lanpostuaren berezko egitekoak behar bezala betetzea eragotziko dion gaixotasunik edo akats fisiko nahiz psikikorik ez izatea.
- e) Diziplinazko prozeduraren bidez Administrazio Publikoetako erakundeen zerbitzutik bereizitakoa ez izatea, eta administrazio publikoan jarduteko gaitasunaz gabeturik ez egotea.
- f) 2. Hizkuntza Eskakizuna, derrigorrezkoa.
- g) B motako gida-baimena indarrean izatea.
- h) Deialdian parte hartzeko Bergarako ordenantzan aurreikusitako azterketa- eskubideengatik tasa ordaindu izana. Azterketa egiteko tasa (11,20 euro) ordaintzeari dagokionean, transferentzia bidez edo izena emateko aplikazioak emandako biderei jarraituz egingo da, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen.

Transferentzia egiterakoan derrigorrez adierazi beharko dira espediente-zenbakia eta deialdian parte hartuko duenaren NAN zenbakia; eta kontu korrante honetan egin beharko da:

KUTXABANK ES94 2095 5070 79 1061075569

Transferentzia-agiria eskaerarekin batera aurkeztuko da.

Izangaiek baldintza horiek beteta eduki behar dituzte deialdian onartuak izateko eskabideak entregatzeko epea amaitu baino lehen (f puntua izan ezik), eta lanpostuaz jabetu arte bete.

Hala ere, prozeduraren edozein unetan, epaimahaiak jakinez gero izangaietako batek ez dituela betetzen deialdiak eskatzen dituen betekizunak edo baldintzak, prozeduratik kanpo geratuko litzateke, interesdunari entzun eta gero, eta hautaketa-prozesua deitu duen agintaritzari egun horretan bertan emango zaio horren berri.

Hirugarrena. Eskabideak

Hauta-prozesuan parte hartzeko eskabideak eredu ofizial eta normalizatuan egingo dira. Eredu hori Bergarako Udalaren web-gunean (www.bergara.eus) "Udal lan eskaintza" atalean bete beharko da.

Onartua izateko, eskabideak Bergarako Udaleko alkate presidenteari zuzenduko zaizkio, eta ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte errefusatuak ez izateko:

a) Hautagaiek adierazi beharko dute deialdiko 2. oinarrian eskatutako baldintza bakoitza eta guztiak betetzen dituztela, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentziatzat hartuta.

b) Eskabidean adierazi egin behar dira baloratu nahi diren merezimenduak.

Honako baldintza/informazio hauek ofizioz egiaztatu eta/edo espedienteari gehitu ahalko zaizkio, interesdunak berariaz kontrakorik adierazten ez badu:

- Nortasun-datuak egiaztatzea
- Titulazio akademikoak (unibertsitatekoak zein unibertsitatez kanpokoak).
- Hizkuntza-eskakizunik altuena (Euskara).
- Ikastaroen ziurtagiria: IVAPen bidez (Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea) egindako eta gainditutako ikastaroen zerrenda.

Horrek guztiak ez du baldintzatuko gero euskarako jakite-mailaren egiaztapenez esango dena.

c) Hautagaiek eskabidean adierazi beharko dute Euskadiko Autonomia Erkidegoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten azterketen faseko ariketak.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko Eskabideak, behar bezala beteta, Bergarako Udaleko "Udal lan eskaintza" ataletik modu elektronikoan aurkeztuko dira, **iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 10 egun balioduneko epean** aurkeztuko dira.

Egitezko errakuntzarik hautematen bada, edozein unetan zuzendu ahal izango da, ofizioz edo interesatuak eskatuta, hurrengo pasartean zehaztutako kasuan izan ezik.

Eskabidean merezimenduak adierazi ez izana soil-soilik zuzendu ahalko da aurkezteko epea amaitzen ez den bitartean; behin epe hori bukatutakoan, zuzenketa ez da onartuko. Zuzenketa

egiteko, izena emateko aplikazioaren bidez beste eskaera bat egin beharko da datu guztiak betez, eta izangai bakoitzak aurkeztutako azken eskaera baino ez da kontuan hartuko.

Ez da egitezko errakuntza kontsideratuko eskabidean merezimenduak zehatz adierazi ez izana. Baldin eta interesatuak gai horri buruzko omisioren bat hautematen badu, zuzendu ahalko du eskabideak aurkezteko epea amaitzen den artean; behin epe hori bukatutakoan, zuzenketa ez da onartuko.

Ez da egitezko errakuntza kontsideratuko, ezta ere, dagozkion tasak ordaindu ez izana, eta eskaria baztertua izango da automatikoki.

Tasa ordaindu baina eskaria ez aurkezteak ere eskatzailea automatikoki baztertzea ekarriko du.

Laugarrena. Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko Lege Organikoa betetzea

Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 2016/679 Araudiak 2016ko apirilaren 27koak datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari lotuta pertsona fisikoak babesteari buruzkoak (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta datuen babesari buruz indarrean dagoen gainontzeko araudiak ezarritakoa betez, izangaien izaera pertsonaleko datuak tratamendu-jarduera baten baitan kokatzen dira. Tratamendu horren helburua da langileak hautatzeko prozesuaren kudeaketa eta jarraipena egitea, baita hautaketa-prozesutik sortuko den lan-poltsa kudeatzea ere.

Bergarako Udala, datu-tratamenduaren arduradun gisa, datu pertsonalak tratatzeko legitimatuta dago, interes publikoaren izenean egindako misio bat betetzeagatik tratatzen direlako datuak eta lege-betebehar baten baitan tratatzen direlako. Halaber, izangaiak berriazko baimena eman beharko dute parte hartzeko eskaeran beren datuak beste administrazio publiko batzuei lagatzeko. Datu-lagapen horren helburu bakar eta eskusiboa izango da administrazio publiko horiek enplegu-eskaintzak egin ahal izatea, legez aurreikusi bezala. Izangaiaren onarpena berriaz jasotzen ez bada, lagapenaren aurka dagoela joko da.

Datuak eskuratzeko, ezabatzeko, zuzentzeko, tratamenduaren aurka egiteko zein horiek mugatzea eskatzeko eskubidea egikaritu ahal izango da, tratamenduaren arduradunaren aurrean, ondorengo helbidera zuzenduta: San Martin Agirre plaza, 1, 20570, Bergara (Bergarako Udala).

Datuen kontserbazioari dagokionean, lan-poltsan sartzea lortu dutenen datuak indarrean dauden bitarteko denboraz mantenduko dira. Plazarik lortu ez dutenen datuak ezabatu egingo dira prozesua bukatu eta bi hilabeteko epean.

Eskubideen egikaritzan behar den arreta jaso ez bada, Datuen Babeserako Euskal Bulegoan erreklamazioa jarri ahal izango du izangaiak (Helbidea: Beato Tomas de Zumarraga, 71 - 3. solairua - 01008 Vitoria-Gasteiz). Hala ere, Udalaren datuen babesaren ordezkariarekin jarri ahal izango da harremanetan, datuen tratamenduarekin lotutako edozein afera dela-eta, honako posta helbidera mezua bidalita: dbo@bergara.eus.

Bosgarrena. Izangaiak onartzea

Aurrekoa amaitu ondoren, Alkatetzak ebazpena emango du onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrendak onartzeko, eta zerrenda horiek Bergarako Udalaren iragarki-taulan eta Udalaren web-gunean jarriko dira.

Erreklamazioetarako eta eskaeretan egindako akatsak edo okerrak konpontzeko, 3 egun naturaleko epea izango da.

Erreklamaziorik ez badago, behin-behineko zerrenda horiek, besterik gabe, behin betiko zerrenda bihurtuko dira. Erreklamaziorik badago, behin betiko zerrenda horiei onespena emango dien ebazpen berri batean onartu edo baztertuko dira, eta zerrendak aurretik adierazitako moduan argitaratuko dira.

Probetan, Ebazpenaren arabera prozesuan onartutako izangaiek parte hartu ahal izango dute, baita zerrendetan baztertuta daudenek ere baldin eta dagozkien inpugnazioak aurkeztuak dituztela eta erabakitzeke daudela frogatzen badute deitutako proban. Ebazpenean erreklamazioak atzera botako balituzte, pertsona horiek prozesutik kanpo geratuko liriteke.

Seigarrena. Epaimahai kalifikatzailea

Probak kalifikatzeko epaimahaia nork osatzen duten udalaren iragarki-taulan eta udal web-gunean argitaratuko da. Epaimahaikideei Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusitako ezespen- eta abstentzio-kasuak aplika dakizkieke.

Epaimahaia honela osatuko da:

Presidentea:

— Begarako Kultura teknikaria

Bokalak:

- a) Kultura eta jaietako teknikaria
- b) Kulturako administraria
- c) Beste udal bateko kulturako langilea
- d) Komiteak izendatutako epaimahaikidea

Idazkaria:

— Udaleko idazkaria

Euskararen ezagutza neurtzeko, Udaleko Euskara Zerbitzutik kide bat izendatuko da eta barne eraginak izango dituen neurketa egingo du.

Epaimahaien jardunbidea Administrazio Prozeduraren Legeak kide anitzeko organoei buruz agintzen duenari lotuko zaio.

Epaimahaiak aholkulari adituen edo enpresa berezituaren laguntza eskatu ahal izango du egoki ikusten dituen ariketetarako, eta aholkulari horiek beraien espezialitate teknikoetan laguntza ematera mugatuko dira.

Epaimahaia eratzten denetik, haren jardunbideak balio izateko, epaimahaikideen gehiengoak bertan egon beharko du.

Epaimahaiaren erabakiak botoen gehiengoaren bidez hartuko dira. Epaimahaiburuan dagoenaren kalitatezko botoaren bitartez ebatziko dira berdinketak.

Epaimahaiburua (edo bere ordezkoa) bertaratu ez bada gaixorik dagoelako, bere kargua hutsik dagoelako edo bestelako lege-arrazoiren bat dagoelako, hierarkian maila goragokoena duen, antzintasun handiena duen edo adinez zaharrena den epaimahaikideak hartuko du haren lekua, esandako hurrenkera horretan.

Idazkari titularraren edo bere ordezkoaren kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixo badago edo titularrari zein ordezkoari eragiten dien legezko bestelako arrazoiren bat badago, epaimahaikideen gehiengoaren erabakiz aukeratzen den kideak beteko du haren kargua.

Epaimahaiak autonomia osoz jardungo du, eta bera izango da prozeduraren gardentasunaren eta objektibotasunaren, proben edukiaren eta konfidentzialtasunaren eta deialdiko oinarriak zorrotz betetzearen erantzulea.

Halaber, ordenamendu juridikoarekin bat etorriz, batetik, oinarri hauek aplikatzerakoan sortzen diren zalantza guztiak ebatziko ditu; bestetik, deialdia behar bezala garatzeko hartu beharreko erabakiak hartuko ditu; eta, azkenik, oinarrietan aurreikusi gabeko kasuetan erabili beharreko irizpideak ezarriko ditu.

Epaimahai kalifikatzailearen ebazpenak lotesleak izango dira izendapena egitea dagokion organoarentzat, baina horrek ez du esan nahi organo horrek erabakia berrikusi ezin dezakeenik, indarrean dagoen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak aurreikusitakoaren arabera.

Zazpigarrena. Aukeraketa-prozesuaren hasiera eta garapena

Oposizio ariketa non eta noiz izango den Bergarako Udalaren iragarki-taulan eta udal web-gunean emango da argitara, aukeraketa-prozesuan onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartzeko ebazpenarekin batera.

Oposizioaldiko probekin hasteko data **2024ko apirileko hirugarren astean izatea aurreikusten da.**

Oposizio-faseko ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo zaie izangaiei. Deitzen zaion unean oposiziogileren bat ez bada agertzen proba horietako edozeinetara, nahiz eta ezinbesteko arrazoiak tarteko, besterik gabe galdu egingo du parte hartzeko eskubidea ariketa edo proba horretan eta horren hurrengoetan; beraz, aukeraketa-prozesutik baztertuta geratuko da. Hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira baita ariketak egiten hasi ondoren sartzen diren izangaia ere.

Lehenengo ariketaren ondorengo gainerako ariketei dagokienez, hasi baino gutxienez 48 ordu lehenago iragarriko du epaimahaiak ariketa.

Prozeduraren edozein unetan, epaimahaiak jakinez gero izangaietako batek ez dituela betetzen deialdiak eskatzen dituen betekizunak edo baldintzak, prozeduratik kanpo geratuko da, berari entzun eta gero, eta hautaketa-prozesua deitu duen agintaritzari egun horretan bertan emango zaio horren berri.

Epaimahaiak oposizio-faseko ariketen ordena aldatzea erabaki dezake. Hala eginez gero, ariketa hasi baino gutxienez 48 ordu lehenago jakinaraziko die izangaiei web-orrian jarriko den ohar bidez.

Zortzigarrena. Aukeratzeko prozedura

Epaimahaiak edozein unetan eska diezaieke izangaiei nork bere burua identifikatzea, eta horretarako, oposizioaren ariketa bakoitzean NANA edo beste edozein dokumentu ofizial eraman beharko dute aldean, epaimahairen iritziz izangaiaren nortasuna behar den bestean egiaztatzeko modukoa dena (pasaportea, gidabaimena).

Oposizio-faseko ariketa bakoitzean, ariketak zuzendu eta izangaien nortasuna ezagutzera eman eta bakoitzaren kalifikazioa erabaki baino lehen, ariketa gainditzeko behar den gutxienerako puntuazioa lortzeko beharrezkoa den ezagutza-maila edo muga ezarri ahal izango du.

Epaimahaiak, ariketak oinarri honetan aurreikusitako hurrenkeran egin beharrean, beste hurrenkera bat jarraitzea erabaki dezake; halaber, egun berean ariketa bat baino gehiago

egitea ere erabaki dezake. Kasu horretan, aurreko ariketa gainditu dutenen ariketak bakarrik aztertu eta baloratuko dira.

Arau orokor legez, **hiru laneguneko** epea ezarriko da –Epaimahaiaren ebazpena argitaratzen denetik zenbatuta– egindako azterketak berraztertzeke eskaera egiteko edo azterketei emandako kalifikazioen inguruko erreklamazioak egiteko.

Azterketa idatziak egitean, Epaimahaiak bidezkoak diren neurriak hartuko ditu izangaien anonimotasuna bermatzeko, betiere ahal den neurrian.

Izangaien hautaketa oposizio bidez egingo da, eta aurreikusten diren ariketen ordena alda daiteke, udalak edo epaimahaiak horrela erabakiko balu.

8.1.- Oposizioaldia

Gaitasunaren fasean, baztertzailerak diren ondoko ariketa hauek egingo dira:

1. Proba teoriko/praktikoa. I. Eranskinean jasotako gaiekin edo/eta lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duten galderei erantzun beharko zaie edo eta Lanpostuaren eginkizunekin zerikusia du(t)en proba(k) praktikoa egin edo garatu egin beharko dituzte.

Proba honetan gehienez 60 puntu lortu ahal izango dira eta gutxienez 30 puntu lortzen ez duten izangaiak baztertuak izango dira.

2. Proba psikoteknikoa: Derrigorrezkoa eta baztertzailerak hautagai guztientzat: lanpostuaren profilari egokitzeari buruzko probak.

Hautagaiak lanpostuaren profil profesional eta bete beharreko funtzioetara nola egokitzen diren ebaluatzerak bideraturiko gaitasun edo/eta nortasunari buruzko proba psikoteknikoak egitea izango da. Probek elkarrizketa ere izan dezakete.

Ariketa honi berrogei (40) puntu emango zaizkio gehienez, eta guztira hogeitun (20) puntu lortu beharko dira gainditzeko eta prozesuarekin jarraitzeko.

- 3.- Euskara-proba: Euskararen ezagutza egiaztatzeke probak egingo dira. Derrigorrezkoa eta baztertzailerak hautagai guztientzat. Gai edo Ez gai baloratuko da.

Derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizunari dagokion euskara-maila dutela egiaztatu beharko dute eta ahozko eta idatzizko proba egingo da. Ez da punturik emango; izangaiak gai edo ezgai sailkatuko dira. Proba hau gainditzeko ez dutenak prozesutik baztertuak geldituko dira.

Proba honek barne eraginak izango ditu; horrenbestez, Bergarako Udalak ez du inongo ziurtagiririk emango.

Ez dute proba hau egin beharrik izango ziurtatzen dutenek 2. hizkuntza-eskakizunarekin parekatutako agiriren baten jabe direla, betiere Euskararen Ezagutza Egiaztatzen duten Titulu eta Ziurtagirien arteko Baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitzeko apirilaren 8ko 64/2008 Dekretuak jasotakoaren arabera 2. hizkuntza-eskakizuna izatea honela ziurtatu ahal da:

1. Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak emandako ziurtagiria, 2. hizkuntza-eskakizuna edo goragoko bat egiaztatu izana frogatzen duena.
2. Baliokide diren beste ziurtagiriak, betiere euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitzeko indarrean dagoen araudiak diotenaren arabera.

Egiaztapen hau proba hasi baino lehen aurkeztu beharko da.

8.2.- Lehiaketa-aldia

Azterketen fasea gainditzen duten hautagaiak merezimenduen fasera igaroko dira.

Ez dira kontuan izango eskabidean alegatu edo adierazi ez diren merezimenduak, ezta horiek egiaztatzeko epaimahaiak emandako epean aurkeztu ez direnak ere. Merezimenduak egiaztatzeko epe hori oposizioaldian aurreikusi diren lehen bi probak amaitu ondoren argitara emango da web-orrian.

Lehiaketaldian **GEHIENEZ ERE 40 PUNTU** lortu ahalko dira.

Fase honetan, Epaimahai Kalifikatzaileak eskabidean adieraziak izan diren hurrengo merezimendu hauek ebaluatuko ditu baldin eta oinarri honetan jasotakoari jarraituz behar bezala kreditatuak izaten badira, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentziatzat hartuz:.

— **Udal batean** bete behar den **lanpostuaren eginkizunekin erlazionatuta egindako lana** –hau da, kultura departamentuari atxikitako ikuskizunetarako erabilera duten eraikin edo instalazioetan edo kultura eta/edo jaietako lanak, ofizial edo teknikari lan edo ardurekin–: Eguneko 0,008 puntu esleituz eta gehienez ere **20 puntu arte**.

— **Ikuskizunen antolaketarako edo garapenerako laguntzaile edo peoi lanetan, enpresa baten bidez eta haren kontura egindako lana**: Eguneko 0,0026 puntu esleituz eta gehienez ere **10 puntu** arte.

Gizarte Segurantzako Kotizazio-agirietan baloratuko diren betekizunen kategoriari dagokion kotizazio-maila izan beharko da eta horren arabera baloratuko da.

Enpresako **gutxienez lau (4) hilabeteko** lan-esperientzia jarraitua egin izana izan beharko du baloratua izateko. Jarraitua ulertuko da lan berdinerako edo lanpostu berdinerako lan kontraturen artean 15 egun baino gutxiagoko etenaldia ematen badira. Kasu honetan denak kontuan izango dira (4 hilabetera iristen badira).

—**Formazio osagarria**: Lanpostuaren eginkizun eta ardurei aurre egiteko lagungarri dela ulertzen den formazio osagarria baloratuko da, gehienez ere **25 puntu** arte.

Ikastaroek gutxienez 30 orduko iraupena izan beharko dute kontuan hartzeko. 30 ordukoari 0,10 puntu emango zaio, eta hortik gorakoak proportzionalki puntuatuko dira.

Erakunde ofizialek emandako ikastaroak izango dira eta **bakoitzaren gaitegia edo edukia zehaztuta eta formazio-ekintzen iraupena ordutan** jaso beharko dute baloratuak izateko. Informazio hori jasotzen ez duten agiriak **ez dira kontuan izango**.

Horren guztiaren eraginetarako, hauek baloratuko dira:

1.-Laneko Arriskuen Prebentziorako formazioa izatea, gehienez ere 3 punturekin.

2.- Kultura ekintza eta ikuskizunen antolaketa, ikuskizun eta kultur aretoen kudeaketa eta segurtasuna, soinu eta argiztapen sistemak eta antzeko arloetako formazio-ekintzak, gehienez ere 10 punturekin.

Bestalde, honako **titulu** hauek izatea baloratuko da:

1.- Telekomunikazioekin edo soinu edo/eta argien instalazio ekipoen mantentze-lanekin zerikusia duen Erdi Mailako Lanbide Heziketari (Formación Profesional de Grado Medio)

dagokion titulua izatea 5 punturekin, eta arlo berean Goi mailakoa izatea 10 punturekin baloratuko da. Goi mailakoa duenari ez zaio baloratuko erdi mailakoa.

2. Erdi mailako edo Goi mailako teknikaria sistema elektrotekniko eta automatizatueta edo titulazio baliokidea izatea, 5 punturekin.

3.- Behe tentsioan kualifikazio indibidualeko ziurtagiria (instaladore karneta) edo hori baimentzen duen titulazioa izatea, 5 punturekin.

Atal honetako 1, 2 eta 3 zenbakietan jasotako titulu hauek atal honetan bakarrik baloratuko dira; ikastaroen atalean ez direlarik baloratuko.

Eskabidean **adierazitako MEREZIMENDUAK EGIAZTATUKO** dituzten agiriak, merezimenduen fasean ebaluatuak izateko, hauek izango dira:

1.- Lan edo zerbitzuen esperientziari dagokionean:

Egindako zerbitzuak ziurtagirien bidez egiaztatu beharko dira. Administrazio publikoetan egindako zerbitzuak zerbitzu horiek bete diren Administrazioak emandako agirien bitartez egiaztatuko dira, horretarako eskumena duten organoek eginak izango dira eta ziurtagiri horietan zehaztuko dira enplegu-harremanaren iraupena, dedikazioaren portzentajea eta betetako lanpostuaren funtzioak.

Begarako Udalean egindako zerbitzuak, betiere eskabidean adierazi badira, agiri bidez kreditatu beharrik ez da izango eta hautagai bakoitzaren espedientean ageri diren datuen arabera ebaluatuko dira.

Enpresa pribatuan inoren kontura egindako lana egiaztatzeko, enpresa-ziurtagiriak edo lan-kontratuak aurkeztu beharko dira.

Kasu guztietan Gizarte Segurantzak emandako laneko bizitzaren agiria ere aurkeztuko da, bai administrazioan eta bai enpresa pribatuan egindako lana ziurtatutzat kontsideratu dadin.

Halaber, sor daitezkeen zalantzak edo aurreikusita ez dauden kontuak ebazteko ahalmena epaimahaiaren esku egongo da.

Oharra: Ez dira kontuan izango eskabidean alegatu ez diren merezimenduak.

Bederatziagarrena. Prozesuaren azken kalifikazioa eta berdinketa

Hautaketa-prozeduraren azken kalifikazioa izango da oposizioaldian eta lehiaketaldian lortutako emaitzen batuketa, eta izangaien lehentasun-ordena zehaztuko du.

Hautespen-sistema osatzen duten ariketen kalifikazioa eta merezimenduen balioztapena amaitutakoan, Epaimahaiak Bergarako Udalaren iragarki-oholean eta web-orrian argitaratuko du hautaketa-prozesua gainditu duten izangaien zerrenda, puntuaziorik handienetik txikienera doan ordenan.

Kalifikazio-epaimahaiak aurreko paragrafoan aurreikusitako zerrenda bidaliko dio alkate-udalburuari, lan-poltsak onartzeko proposamena eginez.

Berdinketa egongo balitz Euskal Funtzio Publikoari buruzko Eusko Legebiltzarreko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua ezarritakoaren arabera eta Gizonen eta Emakumeen Berdintasunari buruzko Eusko Legebiltzarreko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4.a) artikulua arabera,

gaitasun bera badago lehentasuna emango zaio dena delako lanpostu horretan % 40 baino ordezkari gaitasun duen sexuko pertsonari.

Eta halere berdintasunak jarraituko balu, horien artean honela erabakiko da eta hurrenkera honetan:

- a. Lan-esperientzia puntuazio handiena
- b. Oposizioaldian aurreikusi den proba psikoteknikoan puntuaziorik handiena
- c. Zozketaz

Hamargarrena. Agiriak ekartzea eta izendapena egitea

Edozein kasutan ere, izendapenaren aurretik, lanpostua betetzeko proposatu den oposizio gaitasun Pertsonal Sailean dokumentazio hau entregatu beharko du:

— Zinpeko aitorpena, non jasoko den zeregin publikoak betetzeko gaitasuna galduta ez duela eta Administrazio Publikoaren zerbitzuetatik zigor-espeditu bidez baztertua ez dagoela.

— Zinpeko aitorpena, non jasoko den ez dagoela Administrazio publikoetan lan egiten duten langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bateraezintasuneko eta ezgaitasuneko inongo kasutan sartuta.

Dokumentazio hori aurkezteko emandako epearen barruan izangaiak ez badu agiririk ekartzen, edo ez badu egiaztatzen eskatutako baldintzak betetzen dituela, aukeraketak ez du inongo ondorioz izango eta ordura arte egin dituen jardun guztiak baliogabetuta geratuko dira.

Oinarrien arabera dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzea eragozten duen gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik ez duela egiaztatzeko, kontratua egin aurretik Bergarako Udaleko mediku-zerbitzuak behar diren osasun azterketa eta frogak egingo dizkio, eta uko egiten balu edo ez dela gai edo gaitasun mugatuak baditu kontratatua izateko eskubideak galduko ditu lan-poltsetatik kanpo lagako delarik.

Hamaikagarrena. Lan-poltsaren lagapena

Begarako udalak, lan-poltsako parte izango diren izangaien datu pertsonalak beste Herri Administrazio batzuei emango die, betiere deialdi honen bidez eskuratu nahi den lanpostuen antzekoetan sor dakizkiekeen aldi baterako langileak kontratatzeke beharrei erantzuteko.

Beti ere izangaia horren aurka dagoela adieraziko ez balu, propio aurkeztutako idatzi bidez.

Hamabigarrena. Deialdiaren inpu gnazioa

Interesatuta daudenek inpu gnatu ditzakete deialdia, haren oinarriak eta haien ondorioz eta epaimahaiaren jardunaren ondorioz sortatutako administrazio-egintza guztiak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak dioen kasuetan eta hark ezarritako moduan.

I. ERANSKINA

1. Espainiako 1978ko Konstituzioa. Oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak: 14. artikulua.
2. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena: Kontratu motak (12. artikulutik 18. artikulura).
3. Intimitateari buruzko eskubide konstituzionala. Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa: 4. artikulua: 1 eta 2 zenbakiak
4. Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal herri-aginteen jarduna gidatu eta bideratu behar duten printzipio orokorrak: Tratu-berdintasuna eta aukera-berdintasuna.
5. 1215/1997 Errege Dekretua, uztailaren 18koa, langileek lan-ekipamenduak erabiltzeko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen. Enpresaburuaren betebeharrak. Prestakuntzaren eta informazioaren arloko betebeharrak
6. Behe Tentsiorako Erregelamendu Elektroteknikoa onartzen duen abuztuaren 2ko 842/2002 Errege Dekretua: artikulua eta jarraibide tekniko hauek:
Alderdi OROKORRAK: ITC-BT01 eta ITC-BT02.
7. 842/2002 ED, abuztuaren 2koa, Behe Tentsiorako Erregelamendu Elektroteknikoa onartzen duena: BARRUKOAK EDO HARTZAILEAK: ITC-BT18, ITC-BT19, ITC-BT20 eta ITC-BT21.
8. 842/2002 ED, abuztuaren 2koa, Behe Tentsiorako Erregelamendu Elektroteknikoa onartzen duena:
Lokal BEREZIAK: ITC-BT28 eta ITC-BT-51.
9. Abuztuaren 2ko 842/2002 Errege Dekretua, Behe Tentsiorako Erregelamendu Elektroteknikoa onartzen duena: eranskinak: II - Tentsio-erorketak, III - Zirkuitu laburreko korrontek.
10. Abuztuaren 2ko 842/2002 Errege Dekretua, Behe Tentsiorako Erregelamendu Elektroteknikoa onartzen duena: IV. eranskina - Instalazioak egiaztatzea
11. 486/1997 Errege Dekretua, apirilaren 14koa, lantokietako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenei buruzkoa:
I. eranskina. 12. Instalazio elektrikoak.
12. Langileen osasuna eta segurtasuna arrisku elektrikoaren aurrean babesteko gutxieneko xedapenak. 614/2001 Errege Dekretua, ekainaren 8koa.
13. Eszenatokiko makineria: jasotze-sistemak.
14. Eszenatokiko argiteria-tresnak. Oinarrizko kontzeptu eta elementuak ezagutzea.
15. Eszenatokiko argiteria-tresnak muntatzea. Oinarrizko kontzeptu eta elementuak ezagutzea.
16. Dekoratu-motak eta horien ezaugarriak.
17. Mikrofonoak: motak eta ezaugarriak.

18. Bozgorailuak: motak eta ezaugarriak.
19. Audio-nahasgailuak. Oinarrizko kontzeptu eta elementuak ezagutzea.
20. Soinu-sistemak: formatu estereofonikoa eta giro-soinua. Oinarrizko kontzeptu eta elementuak ezagutzea.
21. Bergarako historia. Monumentuen ondarea. Udalerriko kale-izendegia.
22. Bergarako eta haren auzoetako tradizioak eta jai nagusiak.
23. Bergarako kultura-azpiegiturak.

AYUNTAMIENTO DE BERGARA

BASES REGULADORAS DE LA CONVOCATORIA PARA LA CREACIÓN DE UNA BOLSA DE TRABAJO PARA EL PUESTO DE AUXILIAR DE CULTURA Y FESTEJOS

Primera. Objeto de la convocatoria

Las presentes bases tienen por objeto la creación de una bolsa de trabajo para necesidades temporales de contratación de trabajadores/as auxiliares de Cultura y Festejos del Departamento de Cultura, mediante concurso-oposición, y realizar para ello la presente convocatoria única.

El puesto se encuadra, de conformidad con lo establecido en el Estatuto del Empleado Público, en el grupo de clasificación C, subgrupo C2, con un nivel retributivo 7, aplicándosele la proporción de su jornada laboral anual. La valoración del puesto, aún pendiente de establecer, se aplicará a partir del primer día de contratación.

Asimismo, tiene asignado el perfil lingüístico 2, con carácter preceptivo.

La jornada laboral anual es parcial, del 73 % de la que tiene aprobada el ayuntamiento en el convenio laboral del personal, pudiendo incrementarla el ayuntamiento en función de las necesidades. Trabaja de lunes a domingo, así como en días festivos.

La jornada será variable de cómputo anual, por lo que el calendario y horario de trabajo se vincularán a la programación de la sala Seminarixoa y a la programación de cultura y festejos; en general se deberá trabajar en fines de semana, en horario nocturno y en horario y calendario festivo.

Las características del puesto son las siguientes:

- Titulación: Estar en posesión de la titulación de Graduado Escolar, FP-I o especialista de grado medio o nivel equivalente.
- Perfil lingüístico exigido: Perfil lingüístico 2 del IVAP, con carácter preceptivo.
- Permiso de conducir: Permiso de conducir B, en vigor.

Las funciones del puesto serán, entre otras, las siguientes:

Las funciones del puesto son:

- a. **Sala cultural Seminarixoa:** Colaborar con las personas responsables del montaje de los espectáculos y realizar las labores de taquilla, portería y mantenimiento.
- b. **En actos festivos:** montaje, vigilancia y otras tareas. Recibir a los grupos contratados y demás, y realizar el seguimiento y valoración de los actos siempre que se le solicite.
- c. **En actos culturales:** Colaborar en su difusión, colocación y retirada de carteles, repartir a domicilio el material publicitario de las actividades organizadas por el ayuntamiento, etc. En actos organizados por el ayuntamiento, recibir a los grupos culturales o demás, y realizar el seguimiento y valoración de los actos siempre que se le solicite.
- d. Apertura, cierre, preparación y vigilancia de instalaciones culturales y deportivas.
- e. Montaje, desmontaje, instalación y control del equipo de música, así como transporte del material cuando sea necesario para llevar adelante la actuación. Cuidado de la maquinaria y herramientas que se utilicen.

- f. **En la sala Aroztegi:** Realizar tareas de montaje y desmontaje de las exposiciones organizadas, cuando así se le solicite, e incluso tareas de vigilancia en su caso si se le requiriera.
- g. Colaborar con el conserje municipal, con el personal de Obras y Servicios y/o con el personal de otros servicios municipales, cuando sea necesario y así se les requiera.
- h. Vigilar la seguridad de usuarios/as y espectadores/as en actos culturales y festivos.
- i. Realizar tareas de conserjería en instalaciones municipales, cuando sea preciso.
- j. En los actos festivos o culturales organizados o participados por el ayuntamiento, si se precisa electricidad, conectarla y desconectarla en el horario que se le establezca.
- k. Realizar las tareas asignadas de acuerdo con el Plan de Emergencias.
